

Aretxagazeta



Akordeoi
Orkestrak

10
URTE
bete ditu

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**VI. Ferixie inoiz baino
arrakastatsuagoa /8**

INDUSTRIA

**Fagor Ederlan munduko
onenen artean /9**

LEINTZ GATZAGA

**Hogeita hamabi lagun
Getarian /10**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 8
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 9
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 85 83

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

BIG BAND-AREN KONTZERTUA
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak 10. urteurrena ospatzeko kontzertua antolatu du zaturako. Arrasateko Big Band taldeak eskainiko du kontzertua, 19:30ean, Mitarte kalean.

TRIALLOIA DELA ETA, URKULUKO BIDEA ITXITA
Zapatuan, Urkulun hasiko da triatloi proba. Hori dela eta, Urkulurako bidea autoendako itxita egongo da 16:00etatik 17:00etara.

ARALAR TALDEAREN AURKEZPENA
Ekainak 13an, Aralar taldea aurkeztuko dute Patxi Zabaletak eta Mikel Basabek Murruxikoko lokalean, 19:00etan.

ANDRAMAIXETAKO KARTELA
Andramaixak iragarriko dituen kartela egiteko lehia-keta zabalik dago ekainaren 23a bitartean. Andramaixak 2002 abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta testua izan beharko du.

UDAKO IKASTAROKAK
Zainduz osasun eta *fitness* zentroak uztaileko hiru ikastaro antolatu ditu. Mugimendu Konzientearren gainekoa, Emakumeendako Defentsa Pertsonalekoa eta *shitsu*-koa, hain zuzen ere. Informazio gehiago, 943 71 27 92 telefonoan.

LORAMENDIREN AGENDA

ABIADURA HANDIKO TRENAREN GAINEKO BERBALDIA
Eguaztenean, hilaren 12an, Abiadura Handiko Trenaren gaineko berbaldia egingo dute udaletxe zaharreko bigarren solairuan, 19:00etan.

BADIHARDUGU ELKARTEKO BAZKIDE
Badihardugu elkarteak bazkideak behar ditu. Interesatuok, jo Loramendi euskara elkartera.

ORAIN DELA 6URTE ARETXABALETAN

'Aretxagazeta' aldizkariko 100. alea kaleratu zen


1996. urteko ekainaren 6an argitaratu zen ARETXAGAZETAko 100. alea. Orduan, Josu Urkia zen aldizkariko zuzendaria. Erredaktore lanetan, berriz, Iratxe Bengoa zebilen. 100. aleko azala Mikel Arroiabe margolariak egin zuen. Gaur egun, ARETXAGAZETAk 253. alea du kalean.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Fritzixa"

Piztia, ustez arrisku-tsua den animalia. *-Patata-landara pillia dago sustarra janda. Eztakitt nik ze friztixa dabillen.*



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETAKO
Jose Ferreira
Berandu bada ere, zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIAITZA
Eneko Azkargorta
4an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIAITZA
Maite Errarte
5ean. Zorionak, lagunen partetik eta muxutxo bat, Ikerren partetik.



ESKORIAITZA
Irati Iglesias
6an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIAITZA
Iker Pereira
7an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



LEINTZ GATZAGA
Ibone Agirregabiria
8an, 10 urte. Zorionak, etxeko, Anderren eta Aranen partetik.



ARETXABALETAKO
Mari Jose Castro
10ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETAKO
TELEF. 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuna dohanik !!



BASTER ALDE jatetxea

SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETAKO



EGUZZKIGRAF
inprimategia

jai egitaraua, kartelak, bazkari txartelak, pegatzenak, errifak, ...


Jaiak txukun atera daitezzen!!

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETAKO
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Zeuk edo zeure etxekuek mundiala jarraiketan dozue? Zeiñek irebaziko dau?




KATTALIN ANTZIA
Ikaslie



ANGEL BENGEOA
Langillie




MIREN GARCIAETXABE
Jubilaue



JESUS MARI BENGEOA
Jubilaue



LUISA BOTANA
Langillie



JUANCAR ARRAIZA
Langillie

Bai; amak izen ezik, etxien beste danok jarraiketan dogu. Españak jokatu euen partidue ikusi neuen eta De Pedro oso ondo ibili zan. Zeiñek irebaziko dauen? Ez dakit, asko daguz-eta onak.

Ez, telebisiñuen be oso partidu gutxi emuten dittue-eta. Periodikuetatik be ez nabil jarraipen haundirik egitten. Irabazlie? Argentina edo Italia izen biherko da, ez?


Bai; etxien gizonak jarraiketan dutzo, semiek gutxiago, eta nik neuk be ikusten dot apur bat, futbola asko gustetan jat-eta. Españak irabazi daixela, ez? Euskaldun bat be badago-eta.

Apur bat, baiñe larregi ez. Españak jokatu euen partidue irratittik jarraittu neuen. De Pedro ondo hasi zan; oin, ikusi egin biher. Neure ustien, Brasilek edo Italiak irebaziko daue.

Uuuuu! Ez dakit ezer be ez futbolaren gaiñien. Etxien gizonak jarraiketan dutzo, baiñe partidue jarten dauenien telebisiñuen, alde egitten dot. Zeiñek irabazi? Españak, esan biherko.

Ez, ez dutzet bat be jarraipenik egin, futbola ez jat interesetan. Badakit Japon inguruen futbolien dabituela, baiñe gehixagorik ez. Zeiñek irebaziko dauen be ezin neike esan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PINTADAK HERRIAN Benetan pintada kuriosoak ditugu herriko hormetan. Batetik, ETaren aldeko aldarrikapenak eta *Kepa etxera* diotenak; eta, bestetik, aurrekoen gainetik gorritz edo beltzez margotutakoak. Margolari berri horiek elkarriz isilpeko mezuak bidali nahi izanez gero, egongo da beste bideren bat, eta beste grafitiak marrazten has daitezela; gutxienez, politagoak dira. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

Aralarren aurkezpena

Datorren eguenean, Aralar taldea aurkeztuko dute herrian Patxi Zabaletak eta Mikel Basabek.

ASTEAN BEHIN /5

10 urte Akordeoi Orkestrak

Hamar urte bete ditu Akordeoi Orkestrak. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatatu ditu.

KIROLAK /6

Domekan, II. Mendi Martxa

Domekan egingo dute II. Mendi Martxa herrian. Mendizale ugari parte hartuko dute martxan.

ASTEKODATUA

28

KILOMETRO DITU II. MENDI MARTXAKO IBILBIDEAK


Domekan egingo dute Murruxo MEk antolatutako II. Mendi Martxa. Mendizaleak 28 kilometro ibili beharko dira. Tartean hamarretako jateko geldionetxoak egiteko aukera ere izango dute.

BESTEKEESANA

“Esnea ez da moda, bizitzeko era baizik, eta gure ustetan ez da zuzena azken produkturi bakarrik begiratzea. Kalitateari buruz hitz egiten dugunean garbitasun eta osasun baldintzak baino zerbait harantzago joan behar gara. Eguneko esnearen kontzeptua berreskuratu beharra dago. Era berean, giza eta ingurumen arazoa ere bada; kalitate hitzak denak batu behar ditu bere baitan, eta horrek herri txikiak bizirik irautea eta lurra edo paisaia era egokian gestionatzea esan gura du. Produktzioaz eta komertzializazioaz hitz egiterakoan hurbiltasunaren kontzeptua ere kontuan hartu behar da, esneak bide motza eginez gero energia aurreztearen onura baitakara.”

JON ZUAZABEITIA
‘Gara’ egunkaria/02-05-30

HERRITARRENBERBAK/ Mari Asun Bengoa



Uda edo negu presoak kartzelan

Ekainean sartu gara eta uda gainean daukagu. Dagoeneko eguzkia ere hasi zaigu berotzen eta herritarrok hondartzara ez bada, mendira, eta bestela Landa ingurura ateratzen hasiko gara. Denok? Ez, denok ez. Euskal presoek dauen lekuan jarraituko dute, kartzelan.

Uda hurreratzaren hasten denean herritarrok ez dugu konpromisorik gura: “uda garai txarra da ezer antolatze-ko”, “udan ez da egoten jenderik herrian eta ez du merezi ezer egite-rik”... Horrelako zenbat entzun behar! Noiz da bada garai egokia? Niri ondo dator kidanean? Niri ondo etorri edo ez euskal presoek dauen lekuan jarraituko dute, kartzelan.

Ez da gero samurra hartutako konpromisoari eustea, nik badakit, eta ez noa ni antolatutako ekintza guztietara etorri behar denik esatera, ezta gutxiago ere. Baina ez zait bidezkoa iruditzen eguraldi kaskarra dagoenena bakarrik

gogoratzea presoak han non-bait daudela. Urteko egun guztietan daude, ordu guztietan, eta kartzelan minutuak ere oso luzeak dira.

Bidezkoa ez den guztia salatu beharra dago, negua izan edo uda izan, eta presoan egoera ez da bidezkoa. Euskal

Herritik urruti, gaixoak eta hiru laurdenak beteta dituztenak ere kartzelan... noiz arte? Ez dakit nik, hemen, haien izenean lau elkartuta ezer lortuko dugun, baina batu gabe behintzat ez dugula lortuko seguru. Gure

indarra, herritarren indarra, geure baitan dago, geure presentzian. Kale agerraldi bat egin, mendi martxa bat egin, jaialdi bat egin, garrantzitsuen jendearen presentzia da. Bat etortzen bada balio txikia izango du, ehun badatoz askoz handiagoa izango du, eta mila etorri gero izugarria. Ez dago oihurik ere egin beharrik geure presentziak dena esaten du-eta. Uda edo negu euskal presoak kartzelan daude.

“Noiz da bada garai egokia, ondo dator kidanean? Niri ondo etorri edo ez euskal presoek dauen lekuan jarraituko dute, kartzelan”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Irabazlerik bai?

Adi-adi egon zaitezte, izan ere, Aretxar-tek, herriko dendarien elkarteak, erosketatxartelak zozketatu ditu dagoeneko. Errekabarreneko Tirsoren fruta dendan emandako bonoa izan da saritua. Irabazleak 150 euroko saria jasoko du. A ze saria! Oraindik irabazlerik ez ei da agertu. Niri behintzat ez zait tokatu. Baina beste sari txikiagoak ere badaude. Horieta-koren bat beharbada... ia tokatzen zaidan. Zuek ere adi egon zaitezte, eta ez ahaztu bonoak begiratzeaz. Ia hurrengo alean irabazleen izenak kalera-tzen ditudan.

Beste irabazle batzuen izenak ere jasoko ditu hurrengo aleak. Bihar egingo den **triatloiko** irabazleenak hain zuzen ere. Ikusgarria izango da, probaren hasiera, Urkulu izango baita. A ze hotza egon behar duen hango urak, hezurretaraino sartzeko modukoa.

Hurrengo eguneko plana, domekako, gustukoagoa dut: **mendi martxa**. Orain bi urte oso eguraldi txarra egin zuen, aurten berriz, ez dakit zorte hobea izango duten partehartzaileek. Baietz espero dut. Aurten, ni neu ere animatu naiz. Ibilbidea polita da, baina kilometro askotxo gauza onerako. Uff! Nire hankak. Hori bai, udara begira eta izerdi batzuk botatzeko plan aproposa da. Domeka arte, beraz.

POLITIKA/ Herritar guztiei egin gura die gonbita aretxabaletar talde batek Aralar bertatik bertara ezagut dezaten

Patxi Zabaleta Aralar taldea aurkeztera etorriko da eguenean Aretxabaletara

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako hainbat herritarrek eskatuta, Aralarreko kide Patxi Zabaleta eta Mikel Basabe izango dira eguenean herrian, Aralar taldea aurkezteko. Aurkezpen ekitaldira interesa duten guztiei hurreratzeko gonbita egin diete antolatzaileek.

Aralar taldeak, alderdi izatea erabaki zuen ezkerreko, zeresan ugari eman du. Batzuk alde eta beste batzuk kontra, iritzi guztiak jaso ditu. Orain, aretxabaletarrek bai Patxi Zabaletak bai Aralar taldeak dioena herrian bertan ezagutzeko aukera izango dute.

HAINBAT HERRITARREN INTERESA

Orain dela hilabete batzuk, hainbat aretxabaletar batzarrak eginen hasi ziren. Aralar taldearen politika zuten hizpide batzar horietan, eta poliki-poliki interesa areagotuz joan den neurrian, Aralarren berri bertako taldeki-deengandik zuzenenean jaso beharra zegoela ikusi zuten. Era berean, Aralarrek jakin-mina sortu dien baina galdetzeraz ausartzen ez diren herritar ugari egon dai-



Patxi Zabaleta eta Mikel Basabe etorriko dira Aralar taldea aurkeztera.

tekeela pentsatu zuten. Horiexek izan dira eguneko aurkezpena antolatzeko arrazoiak.

Aurkezpen ekitaldia irekia

izango da. Herritar askok gonbidapenak jaso badituzte ere, ez dago gonbidapenarekin joan beharrik; hortaz, Murruxoko

lokaleko ateak guztiendako egongo dira zabalik eguenean, hilaren 13an, 19:00etatik aurrera.

PATXI ZABALETA ETA MIKEL BASABE

Aurkezpenean Patxi Zabaleta eta Mikel Basabe egongo dira. HBren sorreran parte hartu zuen Patxi Zabaletak orain dela 25 urte, eta Nafarroako parlamentuan HBko eta EHko parlamentari izan da. Orain, Aralar taldearen sortzaile eta buruetako bat da. Haren hitzetan, Aralar demokratikoa oinarritutako taldea da, sozialista eta independentziaren aldekoa. Hori guztia azaltzera eta herritarrek egingo dizkioten galderak erantzutera etorriko da eguenean. Mikel Basabe, berriz, elorriarra da, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kazetari izandakoa da eta orain, Durangaldeko *Anboto* aldizkarian dabil.

Hilaren 22an eta 23an, bestalde, Aralarrek Lehen Biltzarra egingo du Gasteizen. Eztabaida prozesu luze baten ondoren, alderdiak zehaztuta ditu norabidea markatuko duten ponentziak: antolakuntza, ildo ideologikoa eta ildo politikoa. Orduan aukeraturiko dituzte Aralarren koordinatzaileak eta beste barme karguak.

Euskararen kale erabileraren neurketa egin du Udaleko Euskara Zerbitzuak

MIRARI ALTUBE

Udaleko Euskara Zerbitzuak eskatuta, Sei kultura elkarteak euskararen kale erabileraren neurketa egin zuen Aretxabaletan iaz, azaroa eta abendua bitartean. Orain, neurketa horren emaitzak eman ditu.

2001. urtean egindako kale neurketa hori gure herrian egin duten zortzigarrena izan da. Azken emaitzak aurreko neurketekin alderatu dituzte, eta, interpretazio lana egin ostean, hainbat ondo-

rio ateratu dituzte Sei kultura elkarteko kideek.

JASOTAKO DATUAK

Sei kultura elkarteak 1.743 lagun aztertu ditu, hau da, biztanleriaren ia %30, jakinik, betiere, kanpotarren bat egon daitekeela datu horietan. Neurketa horren arabera, euskararen kaleko erabilera %54,5 da. Euskararen ezagutza, berriz, handiagoa da: %63,5.

Hainbat erataria egin dute azterketa: zonaka, adinaren arabera, generoaren arabera... Adinari dagokionez, 14 urte bitarte-

ko ume eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%76,6) eta helduak gutxien (%39,7).

Ondorioak ateratzeko orduan, Seik esan du azken hiru urteetan, nahiz eta mantsoa izan, goranzko joera egon dela kale erabileran. Aurrera begira joera horrek iraun dezan gazteen erabilera ohiturei eustea funtsezkoa izango dela ere gaineratu du.

BERTAKO EUSKARA IKERTZEKO BEKA

Bestalde, Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzua kezkatuta dago, Eskoriatzako eta Leintz

Gatzagako udalak bezala, bertako berba egiteko era galtzeko zorian dagoela ikusita. Hori dela eta, bertako euskararen ikerketa linguistikoa globala egiteko beka kaleratu du. 15 hilabeteko ikerketa egin beharko du beka lortzen duenak eta ordainsaria 9.000 euro izango da. Proposamenak aurkezteko epea astelehen honetan bertan zabaldu dute aurretik aipaturako udaletan eta hilabete barru itxiko dute. Horren gaineko informazio gehiago gura duenak 943 71 18 62 edo 943 71 44 07 telefonoetara dei egin dezala.

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

**Dorleta
taberna**

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

MUSIKA/ Zapatuan hasi eta uztailaren 20a bitartean hainbat ekitaldi egingo dituzte

Akordeoi Orkestraren 10. urteurrena, ekitaldiz beteta

MIRARI ALTUBE

Hamar urte bete ditu aurten Akordeoi Orkestrak. Bidean lan, poz eta sufrimendu ugari geratu dira. Dagokion moduan ospatu gura du orkestrak urteurrena, ekitaldiz beteta. Hori dela eta, kontzertu bikainak izango ditugu herrian hurrengo asteetan.

Prentsaurrekoa eman zuen egue-
nean Akordeoi Orkestrak 10.
urteurreneko ekitaldiak aurkez-
teko. Mikel Elortza presidenteak
eta Juanjo Orobengoa zuzenda-
riak hamar urteko ibilbidearen
laburpena egin zuten. Datozen
asteetarako antolatu dituzten eki-
taldien berri ere eman zuten.

LANA ETA SARIAK

Hamar urtean herriko gazte uga-
ri pasatu dira Akordeoi Orkestratik.
Batzuk joan eta beste
batzuk etorri, baina orkestrak
bere horretan iraun du Juanjo
Orobengoa zuzendariaren lana-
ri esker. Entseguetan emandako
orduek eta sufrimenduek euren
emaitza izan dute, eta Europako
hainbat herritara bidaiatzeko
aukera izateaz gainera, sariak
ere lortu dituzte. Azken bidaiak
Txekiara egin zuten udaberri
honetan. Akordeoi orkestraren
antolatutako txapelketa baten
hartu zuten parte Txekian, eta lau-
garren postuan geratu ziren. Era
berean, negu partean Arrasaten
egin ohi den Akordeoi Txapelke-
tan ere ez ziren batere gaizki mol-
datu aretxabaletarrak.

10. URTEURRENEKO EKITALDIAK

Hamargarren urteurren hori
behar den moduan ospatzeko
hainbat kontzertu antolatu dituz-
te, eta entzute handiko orkestra
bat baino gehiago izango ditugu
herrian ekainean eta uztailean.

Lehenengo kontzertua bihar,
zapatua, izango da eta Arrasate
Musikaleko Big Band taldeak
emango du. Herrian behar den
moduko aretorik ez dagoenez,
Mitarte kalean izango da kon-
zertua, 19:30ean. Big Band taldea
haize-instrumentuz osatutako tal-
dea da eta hainbat estilotako



MIRARI ALTUBE

Herriko akordeoilariek uztailaren 13an emango dute kontzertua parrokan.

*Hamar urtean
herriko gazte ugari
pasatu dira.
Akordeoi
Orkestratik*

musika jotzen du: jazzak, bluesa,
soinu-banden doinuak, baita roc-
ka eta kantu latindarrak ere. Eta
hurrengo zapatuan, ekainaren
15ean, Lasarteko Zero Sette Akor-
deoi Orkestra etorriko da. Kon-
zertu hori ere Mitarte kalean
izango da, 19:30ean.

Uztailaren 13an, berriz, Iñigo
Aizpirolea akordeoi jotzaileak,
Edorta Aiausti tronpetak jotzaileak
eta Aretxabaletako Akordeoi

*Urteurrenari
bukaera emateko,
uztailaren 20an,
Euskal Herriko Gazte
Orkestra etorriko da*

Orkestrak bat egingo dute kon-
zertu bikaina eskaintzeko. Hori
Aretxabaletako parrokan izan-
go da, 20:00etan.

Eta urteurreneko ospakizun-
ak bukatzeko, uztailaren 20an
(zapatua), Euskal Herriko Gazte
Orkestra etorriko da. Kontzertua
kirol etxean izango da, 22:00etan.
Prezio bereziak egongo dira baz-
kideendako eta sarrerak aurrez
erosten dituztenendako.

LABUR

Aretxarte merkatarien elkarteak zozketa eginaz bukatu du Udaberriko Kanpaina

Aretxarte Aretxabaletako merkatarien elkarteak apiril inguruan jarri zuen abian Udaberriko Kanpaina. Aretxarte barruan dau-
den denda eta komertzioetan erosketak egin izanagatik zozketa
baten parte hartzeko txartelak eman dituzte orain arte; zozketa-
tu dutena, berriz, bederatzi erosketa-txartel. Martitzenean egin
zuen zozketa elkarteak batzordeak: 150 euroko erosketa-txartela
Tirso fruta dendan emandako 12.409 zenbakiarendako izan da, eta
60 euroko erosketa-txartelak Zubian emandako 4.760, Kiskurren
emandako 5.161, Txilarran emandako 11.018, Iberren emandako
9.989, Iriarten emandako 10.440, Iosun emandako 12.917, Aitzorrotzen
emandako 8.770 eta Lasain emandako 9.159 zenbakiendako.

Zuhaitz Errasti gaztea atxilotu zuen Ertzaintzak joan den egubakoitz goizaldean

Zuhaitz Errasti 21 urteko aretxabaletarra atxilotu zuen Ertzain-
tzak joan den egubakoitzean, 01:30ean, Urbaltz tabernan. Terro-
rismoaren apologia egitea eta agintariak iraintzea egotzi zizkio-
ten Zuhaitzi, eta gaua Bergarako komisarian pasatu zuen, inko-
munitatuta. Ertzaintzaren iturrien arabera, Zuhaitz herriko
hormetan pintadak egiten ikusi zuten ertzainek, eta esprai pote-
ak eta eskularruak aurkitu zituzten pintadak egindako lekuan.
Egubakoitzean, manifestazioak egin zituzten bai Arrasaten bai
Aretxabaletan, atxilotua askatzeko eskatzeko. Egubakoitzean ber-
tan utzi zuten libre ertzainek Zuhaitz Errasti.

TXUTXUMUTXUA



Eskolarteko XIII. Olinpiadetan ia 250 gazte

Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek antolatuta, zapatuan,
Eskolarteko XIII. Olinpiadak egin zituzten Aretxabaletako kirol
etxean. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako Debagoieneko
gaztetxo ugari batu zen bertan, 250 inguru, eta era guztietako
kirolak egin ahal izan zituzten, batzuek futbol zelaian, beste
batzuek barruko kantxetan, eta gainerakoek igerilekuan. Ki-
rol berriak probatzeko eta beste jolas batzuk ikasteko pare-
gabeko aukera izan zuten kirol etxera hurreratutakoek. /M.A.

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

MENDIA

Domekan egingo dute Murrukixo MEK antolatutako II. Mendi Martxa

Antolatzaileek dena daukate gertu, eguraldiak laguntzea baino ez da falta

MIRARI ALTUBE

Orain dela urte bi antolatu zuen Murrukixo MEK lehenengo aldiz Mendi Martxa. Orduan 250 lagunek parte hartzea espero zuen eta ia 300 izan ziren. Aurten ere antzeko kopurua batuko delakoan daude.

Eguraldiak laguntzea baino ez zaie falta Murrukixoko kideei, gainerako guztia gertu dute-eta. Zortzi bat lagun ibili dira antolaketa lanetan eta domekan berrogei inguru izango dira.

DOMEKAN, 07:30EAN

Hitzordua domekan izango da, 07:30ean, Felix Inurrategi lorategian. Izena emateko eta bost euro ordaintzeko hamabost bat minutu lehenago etortzea nahikoa da.

Ibilbidea orain dela urte bi egin zena izango da, guztira, 28 kilometro. Hori bai, indarrak berreskuratzeko hamarretakoa ere emango dute Ugastein eta Leixargaraten. Bai herritarrek bai kanpotarrak lasai etor daitezke, ibilbidea behar den moduan adierazita egongo da-eta. Eguraldi



96 aretxabaletarrek hartu zuten parte orain dela urte biko Mendi Martxan.

txarra eginez gero, berriz, talde bi egongo dira zain, mendian inor gal ez dadin.

Gure mendi eta basoekin disfrutatzeke paregabeko eguna izango da domekakoa.

PILOTA

Aitor Uribarren eta Joseba Akizu izan ziren Alebinen Pilota Txapelketan garaile

Zapatuan jokatu zen Alebinen Pilota Txapelketako finala Iturri-gorri frontoian. Aretxabaletako bikote bi ibili ziren aurrez aurre, eta azkenean, Aitor Uribarren eta Joseba Akizu nagusitu zitzairen Beñat Etxabe eta Ibai Agirreurretari, 18-12. Benjaminek ere euren txapelketa jokatu zuten, teniseko arauetan oinarritutakoa. Eskoriatzarrak eta antzuolarrak ibili ziren norgehiagokan, eta 5-3 nagusitu ziren lehenengoak.

KARATEA

Aretxabaletako Karate Eskolako ikasleek txapelketa egingo dute zapatuan

Bihar, zapatua, Karate Txapelketa jokatu dute Aretxabaletako Karate Eskolako ikasleek. Txapelketa eskolako ikasleendako bakarrik izango da, eta ikasturtean barrena ikasitakoa erakusteko eta neurtzeko aukera izango dute. Odilo Vázquez karate irakasleak talde bitan banatutako hogeita hamabost ikasle ditu aurten, sei eta hamaika urte artekoak batetik, eta hamaika urtetik gorakoak bestetik. Txapelketa kirol etxean izango da, 17:00etan.

KIROL ETXEA

Kirol etxeko ordutegia aldatzea erabaki dute, zerbitzua hobetzeko asmoarekin

Azken urtean kirol etxean eskaintzen diren zerbitzuen gaineko hainbat azterketa egin ostean, Aretxabaletako Udaleko Kirol batzordeak kirol etxeko ordutegia aldatzea erabaki du. Astelehenean bertan jarri zuten abian kirol etxeko ordutegi berria. Hemenetik aurrera, zapatuetan, 13:15etik 15:00etara itxita egongo da. Horren ordez, igerilekua astelehenean 08:30ean zabalduko dute, lehen ez bezala. Aldaketa hori herritarrei eta erabiltzaileei, orokorrean, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoarekin egin dute.

FOTOKIROLA



Peña Hugo txapelduna!

Zapatu goizean jokatu zen areto futboleko finala. Peña Hugo eta MCM talde aretxabaletarrek izan ziren aurrez aurre, eta azkenean, Peña Hugo nagusitu zen, 5-3. Arlutz taberna osteko kantxa ez zen gainezka egon; edozelan ere, Peña Hugok jarraitzaile txiki baina sutsuak izan zituen harmailetan. Urteek aurrera egin duten arren, futboleko jokatzeko ez zaiela ahaztu erakutsi zuten Peña Hugo taldeko jokalariek. /M.A.

Gemes edertze aretoa

- ✓ Depilazio elektrikoa
- ✓ Makillaje iraunkorra
- ✓ Aurpegiko azalaren garbiketa

Durana 40 ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Lehenengo Udalbatzar demokratikoa

Erretratu honetan Franko hil ondoren herrian eratu zen lehen Udalbatzar demokratikoko kideak ikus ditzakegu; 1979. urteko hauteskundearen ostean, Aretxabaletako Udaleko gobernua izan ziren lagunak, hain zuzen ere.

Argazkia Arantzazuko Basilikaren aurrean ateratakoa da. Orduan, gaur bezala, Udalbatzarra urtero joaten zen erromesaldian Arantzazura. Aretxabaletako Udalak, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatikoarekin batera dirua eman eta Arantzazurainoko bidea egiten lagundu zuen. Ordutik hona, erromesaldian joateaz gainera, fraideek bazkaltzera gonbidatzen zituzten udaletako kideak.

Argazkia atera zuten urtean anekdota bitxi bat gertatu zitzaion Aretxabaletako Udalbatzarreko lagunei. Kontua da fraideek monasterio barruan egiten zutela urteroko bazkaria, eta hara gizona ez zirela bakarrik sar zitezkeela. Aretxabaletako Udalean, baina, emakumezko bat ere bazegoen, eta zelan ez, fraideek ez



zioten utzi nahi monasterio barrura sartzen. Azkenean, gizona sartzen ez bazen eurak ere kanpoan geldituko zirela esan zieten fraideei. Jakina, politikarien aurrean kleroak amore eman zuen, eta denek elkarrekin bazkari ederra egin zuten.

Argazkian, eskumatik hasita, zutik: Anton Martínez de Agirre (idazkaria), Aquilino Del Fresno (Zerbitzueta-ko zinegotzia), Manolo Jiménez (aguazila), Jabier San Miguel (diruzaina), Conrado Sauco, Salvador Álvarez, Karmelo Azkoitia, Arantxa Altzola eta Jesus Osinga (Hirigintza zinegotzia).

Behean, berriz, ezkerretik hasita honakoak daude: Txomin Galdos, Jesus Mari Errasti (alkatea), Jose Mari Idigoras, Anjel Akizu eta Manolo Zubillaga (Kultura zinegotzia).

Argazkia: Jesus Osinaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

'Basabe' baserriaren itxura berria

Basabe baserria kalean dagoen baserri ezagunetarikoa izango da. Herri erdialdetik irten eta Urkulura edo Gasteizerako bidea hartuz gero, beti pasatuko gara haren albotik. Urteak joan urteak etorri, beti itxura berari eutsi dio baserriak. Orain dela bost bat urte, zaharberritze lanak egin zituzten; edozelan ere, oinarrian garai bateko baserria dugu *Basabe*.



≈ 1997

Zaharberritze lanak 1997. urte inguruan egin zituzten *Basabe* baserrian. Argazki hau, berriz, lehenagokoa da.



2002

Zuhaitzekin ondo ez ikusi arren, *Basabe* baserriak oraindik garai bateko forma eta tamaina berbera gordetzen ditu.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 7a / 83. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Herriko eta ibar osotik etorritako jendea batu zen zapatuan VI. Ferixan

AINTZANE GARDOKI

Pozik, oso pozik. Horrela azaldu dira Jose Arana Ikastolako arduradunak zapatuan egin zuten VI. Ferixaren gainean galdetzerakoan: "Jendea gainezka, salmenta ona, eguraldi ona eta giro ezin hobea... Ezin gehiagorik eskatu", esan digu ikastolako arduradun Rosa Elizburuk.

Guztira, 96 postu izan ziren ikusgai, zein baino zein ikusgarriagoa. Herri bazkarian 350 lagun elkartu ziren. Eta otarrak eskuratzeko zenbaki saridunak, berriz, 5.414 eta 2.953 izan ziren.

ARGAZKIAK: AMAGIOIA LASAGABASTER



Artisauen lana bertatik bertara ikusteko aukera izan zen Eskoriatzan



Guztira 96 postu izan ziren aurtengo edizioan.

*"Jendea gainezka,
salmenta ona,
eguraldi ona eta giro
ezin hobea... Ezin
gehiagorik eskatu"*

*Zozketatu zituzten
otarren zenbaki
saridunak 5.414 eta
2.953 izan
ziren.*



Herriko ume askok animalien inguruan eman zuten goiza.



Almeneko ikasleek eurak egindako produktu ugari erakutsi zituzten.



31 talde, guztira 10 lagun, ibili ziren txorimaloak egiten.



Arrigorriagatik etorritako kanguroak ikusmina sortu zuten.

INDUSTRIA

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirrol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AXTROKIK ANTOLATUTA,
HITZALDIA

Arantza Lorenzok eta Ane Miren Urangak *Mediterraneaneko dieta* izeneko hitzaldia egingo dute ekainaren 11n, 19:00etan, kultura etxeko aretoan.

ARIZMENDI EGUNA

Arrasaten, zapatuan, Arizmendi ikastolaren eguna egingo da. Ikastolak guraso eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu jaiari parte hartzera.

Fagor Ederlan, munduko lehen mailako hornitzailea

MIRARI ALTUBE

Eskoriatzan egoitza duen Fagor Ederlan lantegiak Ford, Volvo eta Mazda auto berrien piezak banatuko ditu mundu osoan. Pieza diseinatu eta garatzeko ardura ere Fagor Ederlanek berak izango du; hortaz, ez da nolanhiko erantzukizuna.

Fagor Ederlan Benteler Alemaniako etxeak sortutako proiektu baten sartu zen 2000. urtean. Orduantxe hasi ziren Ford, Volvo eta Mazda automobil berriek behar zituzten portamangeta izeneko piezak diseinatzen. Produktua garatzerakoan eta produkzio prozesuan erakutsi duen eskarmentua eta Europa mailako nagusitasuna kontuan hartuta, Benteler etxeak Ederlani eman dio piezak banatzeko ardura.

96 MILIOI EUROKO FAKTURAZIOA

Mundu osoan banatuko ditu portamangetak Ederlanek. Horrek 2002 eta 2005. urte bitartean 96 milioi euroko fakturazioa ekarriko du. Hala ere, Inma Rodríguez marketineko arduradunaren esanetan, garrantzitsuena ez da milioi kopurua: "Ederlanek piezaren diseinuaren eta garenaren ardura osoa izango du. Munduko hornitzaile bakarra eta lehenengo mailakoa izango da; hori da benetan garrantzitsua".

Ederlaneko Ikerketa eta Garpunen Sailak, proiektuaren kon-



AINTZANE GARDOKI

Ederlani 96 milioi euroko fakturazioa ekarriko dio proiektuak.

plexutasun eta eskakizun tekniko zorrotzak direla-eta, ahalegin tekniko handia egin du proba eta entsegetan. Gainera, lehen mailako hornitzaile taldea izan du lan-kide, Benteler etxea koordinatzaile orokorra izanik.

Hori guztia aurreikusita, 34 milioi euroko inbertsioa egin behar du Ederlanek aurten, produkzio lantokia handitzeko, makina berriak erosteko eta Ikerketa

eta Garapen Saila handitzeko, besteak beste.

Fagor Ederlan taldea Usurbilgo eta Tafallako enpresek, FIT Automozioak, Fagor Ederlan Borjak, Automódulos Aragónak, Fundação Brasileirak, Fagor Ederlan do Brasilek eta Galdan enpresak osatzen dute. Guztien artean, 2001eko ekitaldian, 302 milioi euroko salmentak izan zituzten, horietatik, %71 nazioartean.

LABUR

Gaztetxoek hasi dira danborrak astintzen

Azkeneko asteetan, San Pedroetan txikien danborrada egin edo ez egin erabaki ezin ibili dira Udaleko Kultura Saila eta hainbat herritar. Urtero legez, aurten ere herritarren laguntza ezinbestekoa da txikien danborrada pres-tatu eta antolatzeko. Jende nahikorik ez eta, danborrada ez egitekotan egon dira arduradunak, baina azkenean, herritarrei hainbat dei egin eta gero, jendea bildu da eta aurten ere izango da txikien danborrada jaietan. Orain, ahalik eta ume gehien apuntatzea besterik ez da falta.

Ekainaren 8tik 14ra bitartean, igerilekua itxita

Igerilekuak, legediak horrela agintzen duelako, sei hilabete behin garbitu egin behar izaten dira. Datorren astean, horretan ibiliko dira Eskoriatzako kiroldegiko arduradunak. Horregatik, ekainaren 8tik 14ra bitartean, kiroldegiko azpiko solairu osoa, hau da, saunak, frontoi txikiak eta igerilekua bera itxita egongo dira. Guztia garbitu eta desinfektatzea dute helburu.

Hilaren 15ean, garbitasun lanak amaituta, udako denboraldia hasiko dute, eta kanpoko igerilekua eta solariuma ere zabalduko dituzte.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

OTZETA
TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

TOKI
ALAI
TABERNAKarajiloetan
espezializatuaTel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Inoiz baino herritar gehiago GURELek egindako hirugarren irteeran

AINTZANE GARDOKI

Guztira, herriko 32 lagun izan ziren asteburua pasatzen Getariako Askizu auzoko aterpetxean: 15 ume eta 17 aita eta ama, hain justu ere. Barikuan joan eta domeka arte, eguraldia lagun, gogotik disfrutatu zuten txikienek Gipuzkoako kostaldean.

Barikuan, arratsaldeko seietan zuten hitzordua jarrita herriko umeek eta euren gurasoek autoak hartu eta Getariako Askizu auzora joateko. Askizura heldu eta norberaren lotarako zakua aukeratutako ohe gainean utzita, denborarik galdu barik, ondoko frontoian jolasean hasi ziren gazteenak; baloiarekin batzuk eta paretak eskalatzen beste batzuk, baina hori bai, asteburua elkarrekin pasatzeak sortzen zien zirrararekin urduri gehienak.

Gauerdiak ondo jo arte, gora eta behera ibili ziren lotara joan ezinik Gatzagako gaztetxoak. Hurrengo goizean ere goizean goiz altxatu ziren. Bainujantziak jarri eta motxilak hartuta, oinez abiatu ziren Getariako hondartzara. Ura hotza egon arren, umeek ez zuten horrelakorik nabaritu ere egin. Taldeko bi nagusienek, Ibaik eta Lurrek, gehienok gutxitan ikusia zuten eta txikienen artean ikusmina sortu zuen itsas izar bat hartu zuten. Eguzkiak gogotik jotzen zuela eta, bazkaltzera aterpetxera itzuli ziren gatzagarrak. Baina denbora galdu barik, arratsaldean ere osteratxo egin behar hondartzara.

Domekan, berriz, Zarautzera. Orduan ere umeak ezin hondartzatik irten. Txikiak hondartzan utzita nagusi batzuen kargu, beste guraso asko Malekoian paseatzen ibili ziren. Baina umeak protagonista diren asteburuan, gurasoek ere txakolin batzuk hartzeko aukera izan zuten Musika plazan.

Gazteak pozik azaldu ziren Getariara egindako bidaiarekin. "Elantxoben ondo pasatu dugu aurreko urteetan, baina Getarian ere ondo pasatu dugu, bietan dago eta hondartza. Datorren urtean,



Zarautzen, hondartza eta gero, atsedenditxoan ume koadrila bat.



Uretan egun guztia emateko prest Gatzagako umeak.

asteburu bat Elantxoben pasatuko dugu eta hurrengo asteburua Getarian", esan zuen Ibai Agirreurretak.

Gurasoak ere pozik azaldu dira aurten egindako aukerare-

kin; Askizu leku zoragarrian dago kokatuta, inguruak aukera ugari ematen ditu eta aterpetxea bera ez da oso garestia eta oso ondo dagoela gaineratu dute. Batera zein bestera joan, gurasoek urte-



Domeka eguerdian Zarautzeko plazan ume nahiz guraso.


ro irteera egiteko data bat konkretatzearren alde egin zuten; horrela, gurasoek erabaki zuten, aurrerantzean, ekainaren lehenengo asteburua dela aipose-na irteera egiteko.

Gaia aldatuz, Sorginak taldeak Emakumearen Garapenaz berbaldia egingo du 14an, 18:00etan, Garron; Toti Martínez de Lecea, Maite Aristegi eta Amaia Vázquez izango dira hizlari.

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



**MONDRAGON
AUTOMOCION**

AUTOENDAKO OSAGAIK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea GB.

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88

ALTUNA Zurgindegia

Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3
ARETXABALETA
943 79 72 55

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
DekoratiBo eta Industriala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS
ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenuendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba Ibilbidea, 17
•Tel.: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net

GORBEA S.L. **K21**

Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETA
Telefonia eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA 943 793 187

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MODEL MUCOLES ALTZARIAK
Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ SUARDE INTEGRALA
Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**

RKUZ ELEKTROGAILUAK
Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA expert